

# Koiuntura di-da batean

2018ko urria

## Aurkibidea

1. Hazkundera
2. Enplegua
3. Inflazioa
4. Europa
5. ELGEren aurreikuspenak
6. Igurikimenak ingurunean

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia zertxobait moteldu da bigarren hiruhilekoan.

Barne eskariak sendotasunari eutsi dio, baina kanpo saldoa zertxobait okertu da.

### 2. Enplegua %2,0aren inguruan hazi da berriro EAEn.

Eraikuntzak eskuratu du urte arteko aldakuntza tasarik gorena.

### 3. Argindarrak KPIa %2,0tik gora mantendu du.

Hala ere, azpiko inflazioak oso maila txikian (%0,9) jarraitzen du.

### 4. Europak hazkunde erritmoa apaltzen jarraitzen du.

Hirugarren hiruhilekoz jarraian aldakuntza tasa gutxitu du.

### 5. ELGEk munduko hazkundearen aurreikuspenak beheratu ditu.

Munduko ekonomia %3,7 handituko da bai 2018an bai 2019an.

### 6. Nolako bilakaera izan dute 2018rako aurreikuspenek?

Eurogunerako aurreikusten den hazkundera okertzea hauteman da.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA  
SALA  
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
Dirección de Economía y Financiación

## EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

### EAEko ekonomia zertxobait moteldu da bigarren hiruhilekoan

#### Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Kontu ekonomikoen datu zehatzek adierazten dutenez, EAEko ekonomiak moteltze arina bizi zuen 2018ko bigarren hiruhilekoan lehenengoaren aldean, %3,1etik %2,9ra igarota. Erritmo galera hori aurrerapenean ezagutarazi zena (%2,8) baino apur bat txikiagoa da eta bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak uda aurretik egin zuen aurreikuspenarekin. Oro har, taula makroekonomikoak baieztatzen du kanpo saldoak jarrera neutroari eusten diola, hiruhileko horretan hamarren negatibo bat izatera igaro zena. Aitzitik, barne eskariak aurreko %3,0ari atxiki zion, nahiz eta beraren bi osagai nagusien portaera kontrajarria izan zen. Alde batetik, azken kontsumoak hamarren batzuetan leundu zuen bere urte arteko tasa. Beste aldetik, inbertsioak are gehiago bizkortu zuen hazkunde erritmoa.


#### Azken kontsumoa

Urte arteko aldakuntza tasa




#### Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



**Industriaren balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Eraikuntzaren balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreen analisiak adierazten du bigarren hiruhilekoan eraikuntzak 2017ko bizitasuna berreskuratu zuela, lehen hiruhilekoko datu apalago baten ondoren. Sektore hori berriro izan da une hauetako dinamikoena. Beste aldetik, hala industriak nola zerbitzuek apaldu dute urte hasierako bizitasuna, baina beren urte arteko tasak eta 2017ko batez bestekoan eskuratutakoak oso antzekoak dira. Hala ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen adarrak moteltzeko joera garbia erakutsi du, hiru hiruhilekoz jarraian gehikuntza tasa gero eta txikiagoak jaso dituelako, urte arteko tasa %2,7an kokatu arte.


**Zerbitzuen balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e.**  
Urte arteko aldakuntza tasa




## ENPLEGUAREN BILAKAERA

Enplegua %2,0aren inguruan hazi da berriro EAEn

### Enpleguaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustaten kontu ekonomikoek eskaintzen duten informazioak seinatzen du enpleguak %2,0aren inguruko hazkunde erritmoari eusten diola EAEn. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu balio-kideen kopurua %2,1 handitu zen aurreko urtearen aldean. Tasa hori 2016an eta 2017an jasotako enplegu oso antzekoa da eta esan nahi du azken urtebetean 20.000 lanpostu inguru sortu direla. Horri esker, EAEko ekonomiak dagoeneko 956.000 lanpostu dauzka, azken bederatzi urteko kopururik altuena baita. Eraikuntzaren enpleguak izan duen bultzada sendoa azpimarratu behar da, urte arteko tasan %3,4 areagotu zelako, aurreko tasak nabarmen gaituz. Tasa horri esker, krisian galdu zituen 45.000 enpleguetatik 4.000 lanpostu inguru berreskuratu ditu.


### Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




### Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa



**Enplegua industrian**

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren enpleguak egonkortasuneko irudia eskaintzen du, oraingo aldakuntza tasa aurreko epealdietakoaren antzekoa delako. Zehazkiago adierazita, bigarren hiruhilekoan %1,8ko tasa jaso zuen, hau da, azken hamabi hilekoetan 3.500 lanpostu inguru sortu ditu. Sektore horrek dagoeneko 204.000 lanpostu dauzka, baina oraindik urrun dago krisiaren aurretik behar zituen 254.000 haietatik.


Zerbitzuetako enpleguak ere egonkortasuneko joera erakusten du bere bilakaeran, bigarren hiruhilekoan %2,2ko tasa bat jasota, hots, aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat bakarrik txikiagoa, baina 2017ko batez bestekoa baino hamarren bat gehiago. Sektoreak 681.000 lanpostu dauzka gaur egun, inoizko kopururik gorena baita, azken urtebetean sortutako 14.500 enpleguei esker.

**Enplegua zerbitzuetan**

Urte arteko aldakuntza tasa

**Afiliazioa Gizarte Segurantzari**

Urte arteko aldakuntza tasa




Jadanik argitaratu diren Gizarte Segurantzako afiliazioaren uztailleko eta abuztuako datuek pentsarazten dute hirugarren hiruhilekoan ere enplegua %2,0aren inguruan haziko dela, baina litekeena da azken zifra tasa horren apur bat beherago egongo dela. Estatistika horretan, ez da ezberdintasun handirik hautematen genero bakoitzaren enplegu sorreran, bi kasuetan %1,9an kokatu direlako.

# INFLAZIOA

## Argindarrak KPIa %2,0tik gora mantendu du

### KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Argindarraren salneurriak gorakada bizia izan du, CO<sub>2</sub> isurtzeko eskubideen prezioa garestitu delako. Horrek bere isla izan zuen KPIaren abuztuko datuan (%2,2). Garestitze hori neurri batean erregaien portaerak konpentsatu zuen, aurreko hilekoetako goranzko joera gelditu baitzuen. Halere, ezin izan zuten saihestu KPIa, laugarren hilekoz jarraian, %2,0tik gora kokatzea. Egoera hori puntuala da, azpiko inflazioa oraindik oso balio apaletan (%0,9) dagoelako.

### KPIaren banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko abuztua	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	0,8	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,4	0,6
<b>Hondar inflazioa (%18,2)</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>8,1</b>	<b>1,5</b>
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	4,3	0,3
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	11,0	1,2


### Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




### Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



### KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatu berri den argindarraren garestitzearen ondorioz, etxebizitza taldeak izan zuen eragin positibo handiena abuztuko inflazioan, beraren urte arteko tasa bost hamarrenetan goratu baitzen, %4,8ra arte. Aitzitik, garraioak, oraindik tasa altuetan (%5,1) egon arren, zazpi hamarrenetan apaldu zen uztailean jasotako datuaren aldean, erregaien bilakaerari esker, baina baita automobilien merkatzeari esker ere. Merkatze horren atzean, kontzesionarioek isuriei buruzko araudi berria indarrean sartu baino lehen stocka gutxitzeko egin duten kanpaina dago. Orobat, aisialdia eta kultura zein hotelak, kafetegiak eta jatetxeak taldeek ere lagundu zuten inflazioa gehiago ez hazten, pakete turistikoak eta lojamenduko zerbitzuak 2018an aurreko urtean baino gutxiago garestitu direlako.

### KPIaren talde nagusiak


Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,0	2,0	1,9
Edari alkoholduak eta tabakoa	2,7	2,1	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,2	0,9	-0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,8	4,3	2,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,3	0,3	0,3
Medikuntza	0,2	0,0	0,9
Garraioa	5,1	5,2	4,6
Komunikazioak	2,7	2,6	-0,8
Aisia eta kultura	-1,1	-1,1	0,7
Hezkuntza	1,0	0,8	-3,6
Jatetxeak eta hotelak	1,6	1,8	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,1	1,0	1,3


## EKONOMIAREN HAZKUNDEA

### Europak hazkunde erritmoa apaltzen jarraitzen du

**Europar Batasuneko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasak




**Euroguneko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasak




Eurostatek argitaratu duen informazioak baieztatu du Europa bizitasun gutxiagoko aldi batean dagoela murgilduta. Izan ere, BPGa %2,1 hazi zen bigarren hiruhilekoan, hala Europar Batasunean nola Eurogunean. Lehen kasuan, tasa hori aurrekoa baino bi hamarren txikiagoa da, eta bigarren kasuan hiru hamarren apalagoa. Bi kasuetan, hirugarren hiruhilekoz jarraian moteldu da hazkunde erritmoa. Bizitasun galera horrek ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakundeen emaitzak baieztatzen ditu, erakunde horiek 2018 urtea motelagoa izango dela eta apaltasun hori 2019ra ere hedatuko dela adierazten dutelako. Moteltze hori eremuko herrialde askotan hautematen da. Hain zuzen ere, datuak argitaratu dituzten 26 herrialdeetatik, 16k tasa txikiagoa jaso dute. Hala eta guztiz ere, gaur arte argitaratu diren ekonomia adierazleek bigarrenaren antzeko hazkunde iradokitzen dute hirugarren hiruhilekorako, beste krisi ekonomiko bat datorrelako ideia oraingoz baztertuz.

**Alemaniko BPGa**  
Urte arteko tasa




**Frantziako BPGa**  
Urte arteko tasa






**Espainiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa



**Italiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskariaren ikuspegitik, bi eremu horietako moteltzea esportazioen aldetik iritsi zen, ekarpen txikiagoa egin zutelako. Beraz, esportazioak suspertzen badira, BPGaren hazkundea aurreko epealdiko tasara itzuli daiteke.

Herrialdeka azalduta, Alemania nahiko egonkor mantendu zen eta hamarren bakar bat galdu zuen urte hasierako datuaren aldean. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren bultzada txikiagoak azaltzen du gehikuntza txikiago hori. Frantzia, moteltzea biziagoa izan zen. Kasu horretan, esportazioen gehikuntza txikiagoak BPGa kaltetu zuen, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago hazi baitzen. Italiak, berriz, barne eskariaren ekarpen handiagoa lortu zuen, baina esportazioen moteltzeak eta inportazioen gehikuntzak kanpo arloaren ekarpen negatibo handiagoa eragin zuten, hazkundeari hainbat hamarren kenduz. Espainia ez zen salbuespena izan eta oraindik bizi hazi zen arren, indarra galdu zuen.

Joera horretatik urrun kokatu ziren Portugal eta Erresuma Batua. Herrialde lusitaniarra barne eskariaren indarrari esker hazi zen, lan merkatuaren bilakaera onak bultzatuta. Azkenik, Erresuma Batuak aurreko hiruhilekoan galdu zuen eremuaren zati bat berreskuratu zuen eta hamarren bat suspertu zen, kontsumo pribatuaren egonkortasunak lagunduta.


**Portugaleko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa



**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat.

## ELGE-REN AURREIKUSPENAK

### ELGEk munduko hazkundearen aurreikuspenak beheratu ditu

#### Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



ELGEren tarteko aurreikuspen berrien arabera, munduko hazkundera %3,7an kokatuko da 2018an eta 2019an. Perspektiba berri hauek 2018ko maiatzean argitaratu zituenak baino zertxobait okerragoak dira. Beheranzko zuzenketa hori, eremu geografikoka orokorra baita, hainbat arrazoitari oinarritu da, hala nola tentsio geografikoetan, azaleratzen ari diren herrialdeetako baldintza murriztaileetan, ziurgabetasun politiko orokorrean eta merkataritza hazkundearen moteltze kezkarriari, konfiantzan eta inbertitzeko planetan eragina izaten hasi baita.


#### ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,6</b>	<b>3,7</b>	<b>3,7</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,2</b>
AEB	2,2	2,9	2,7	0,0	-0,1
Eurogunea	2,5	2,0	1,9	-0,2	-0,2
Alemania	2,5	1,9	1,8	-0,2	-0,3
Frantzia	2,3	1,6	1,8	-0,3	-0,1
Italia	1,6	1,2	1,1	-0,2	0,0
Erresuma Batua	1,7	1,3	1,2	-0,1	-0,1
Kanada	3,0	2,1	2,0	0,0	-0,2
Japonia	1,7	1,2	1,2	0,0	0,0
Txina	6,9	6,7	6,4	0,0	0,0
Korea	3,1	2,7	2,8	-0,3	-0,2
India	6,7	7,6	7,4	0,2	-0,1
Brasil	1,0	1,2	2,5	-0,8	-0,3

Iturria: ELGE.


### AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




### Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




### Alemaniarako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



### Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneari dagokionez, Erresuma Batuaren eta EB-ren arteko Brexitaren ondorengo etorkizunerako akordioak kezkatzeko faktoreetako bat dira, egonkortasun fiskal eta finantzarioan eragina izan dezakeena. Orobat, merkataritzako politiken inguruko ziurgabetasunak, non protagonista nagusiak AEBek eta Txinak ezarri dituzten arantzel berriak baitira, espero zena baino moteltze handiagoa ekarri diezaiokie nazioarteko merkataritzari. Bitxia den arren, AEBetarako aurreikuspenak ia bere horretan utzi ditu, hau da, aurtengo tasa %2,9an eta datorren urtekoa %2,7an (hamarren bat beherago), eta Txinakoak ez ditu aldatu, hazkunde tasak %6,7 eta %6,4 izango direla.

2017ko amaieran eta 2018ko hasieran aurreikusi zuen hedatze orokorretik aldentuta, ELGEk gero eta diferentzia handiagoak aurreikusten ditu herrialdeen artean.

### Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: ELGE.


## INGURUARENTZAKO IGURIKIMENAK

### Nolako bilakaera izan dute 2018rako aurreikuspenek?

**Eurogunearentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundea




**AEBentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundea




Consensus Forecastek hilekoan behin biltzen duen informazioa baliagarria da ekonomia analisigileek eremu garatu nagusien hazkundeaz duten iritzia ezagutzeko. Izan ere, irudi hauek ez dute erakusten ekonomia horien hazkunde erreala, analistek 2018rako egin dituzten aurreikuspenak baizik. Begi bistakoa da Europarentzat eta AEBentzat erakusten duten perspektiba ezberdina dela. Lehen kasuan, 2017ko lehen erdian igurikimenek hobera egin zuten eta 2018an espero zuten hazkunde tasa %2,5aren ingurura hurbildu zen, baina gaur egun uste dute gehikuntza ez dela %2,0 baino handiagoa izango. AEBetako kasuan, ordea, oraindik ez da konfiantza galera hori gauzatu eta espero duten hazkundea %3,0aren ingurukoa da.

**Alemaniantzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundea




**Frantziarentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundea




Europako herrialdeen artean, oso egoera ezberdinak daude. Euroguneko hiru herrialde handienek bat egiten dute 2017 osoko eta 2018ko hasierako igurikimenen hobekuntzan eta udaberritik aurrerako okertzean. Gaur egun pentsatzen da Alemania aurten %2,0 baino zertxobait gutxiago haziko dela, Frantzia %1,7 eta Italia %1,2.

**Italiarentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundera




**Erresuma Batuentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundera



Erresuma Batuen kasuan, ia ez da aldaketarik egon 2017ko urtaririlean zegoen iritziarekiko eta orain ere pentsatzen da 2018ko hazkunde tasa %1,5 baino txikiagoa izango dela. Kasu horretan, Brexitaren negoziazioak eta erabaki horrek herrialdearen ekonomian izango dituen ondorioek osorik baldintzatzen dituzte perspektibak.

Espainiak ez du bat egin Europako bazkideen konfiantza galera horrekin eta eskaintzen duen igurikimen profila AEBena bezalakoa da. Hain zuzen ere, hasieratik hautematen da 2018rako espero den hazkunderaren hobekuntza eta baikortasun hori ia ez da ezertan okertu, gorabehera txiki batzuk egon diren arren. Batez besteko aurreikuspena %2,5aren gaineratik egon da 2018ko urte ia osoan zehar.

**Espainiarentzako aurreikuspena**  
2018an espero den hazkundera



## EAE-KO EKONOMIA

## Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>
Familien kontsumoa	3,3	3,0	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,4	2,0	2,5	2,7	2,6	2,0
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,5	2,8	3,7	3,7	4,8
Barne eskaria	3,6	3,0	2,7	2,9	3,0	3,0	3,0
Esportazioak	1,8	4,7	3,6	5,6	6,8	6,7	2,2
Inportazioak	2,2	4,8	3,3	5,4	6,9	6,4	2,4
Lehen arloa	1,0	6,8	9,6	9,6	-2,7	-3,0	0,8
Industria	4,2	3,1	2,9	3,0	3,5	3,7	3,1
Eraikuntza	0,2	3,8	3,9	4,7	4,0	2,7	4,1
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,8	2,7	3,1	2,8
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,5	2,7	3,3	3,1	2,8

Iturria: Eustat.

## Aurreikuspenak. 2018ko maiatza

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018			2018	2019
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,9</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,8</b>	<b>2,3</b>
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,6	2,1
Familien kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,7	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	2,0	2,2	1,8
Kapital eraketa gordina	3,5	3,5	3,3	3,5	2,9
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,7	2,9	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-8,7	-8,0	-6,7	-4,6
Industria	3,3	3,1	2,8	3,3	2,3
Eraikuntza	2,4	2,2	2,0	2,3	1,8
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,9	2,7	2,7	2,8	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,6	2,4	2,3	2,6	2,0
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

## EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
BBVA	3,1	2,8	Confebask	2,9	—
Funcas	3,1	—	CEPREDE	2,7	2,3
Laboral kutxa	3,0	2,5	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,4	—

Iturria: CEPREDE (2018ko uztaila), BBVA (2018ko maiatza), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko uztaila), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza).

## ESPAINIAKO EKONOMIA

### Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	1,7	2,0	2,6	2,4	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,9	4,8	3,6	5,8	5,2	3,9	7,7
- Aktibo finko materialak	2,7	5,1	3,6	6,0	5,6	4,0	8,5
- Eraikuntzan	1,1	4,6	4,1	5,7	4,8	5,7	7,0
- Ekipamendu ondasunetan	5,2	6,0	3,3	6,8	7,0	1,9	11,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	3,5	3,5	4,5	3,1	3,1	2,8
Nazio eskaria (ekarpena)	2,4	2,9	2,6	3,2	3,3	3,1	3,3
Esportazioak	5,2	5,2	5,4	5,4	4,2	3,4	2,3
Inportazioak	2,9	5,6	4,4	7,0	5,4	4,7	5,2

Iturria: INE.

### Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,6	2,3	Intermoney	2,7	2,3
Axesor	2,7	2,4	Repsol	2,6	2,1
BBVA	2,9	2,5	Santander	2,7	2,1
Bankia	2,7	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,6	2,2
CaixaBank	2,7	2,3	<b>BATEZ BESTE</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2018-04)	2,7	2,4
CEEM-URJC	2,7	2,3	Espainiako Bankua (2018-09)	2,6	2,2
CEPREDE-UAM	2,7	2,3	Europar Batzordea (2018-05)	2,9	2,4
CEOE	2,7	2,3	NDF (2018-07)	2,8	2,2
FUNCAS	2,6	2,2	ELGE (2018-05)	2,8	2,4
ICAE-UCM	2,7	2,4	The Economist (2018-09)	2,7	2,3
IEE	2,8	2,4	Consensus Forecast (2018-09)	2,7	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril;

## NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Ekonomia hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
AEB	1,5	2,3	2,1	2,3	2,5	2,6	2,9
Txina	6,7	6,9	6,9	6,8	6,8	6,8	6,7
Japonia	0,9	1,7	1,6	2,0	2,0	1,1	1,3
Kanada	1,4	3,0	3,8	3,1	3,0	2,3	1,9
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,5	2,8	2,6	2,3	2,1
Eurogunea	1,9	2,2	2,5	2,8	2,7	2,4	2,1
Alemania	2,2	2,2	2,2	2,7	2,8	2,0	1,9
Frantzia	1,2	1,8	2,3	2,7	2,8	2,2	1,7
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,8	1,7	1,3	1,2	1,3
Italia	0,9	1,5	1,6	1,7	1,6	1,4	1,2
Herbehereak	2,2	3,2	3,3	2,9	3,1	3,1	3,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

### Consensus Forecast. 2018ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,6	2,5	2,3	3,9	3,6
Japonia	1,1	1,1	0,9	1,1	2,4	2,3
Kanada	2,0	1,9	2,4	2,1	5,9	5,8
Europar Batasuna	2,0	1,8	1,9	1,8	—	—
Eurogunea	2,1	1,8	1,7	1,6	8,3	7,9
Alemania	1,9	1,7	1,8	1,8	5,2	5,0
Frantzia	1,7	1,7	1,9	1,6	8,8	8,5
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,4	2,1	4,2	4,3
Italia	1,2	1,1	1,3	1,4	10,8	10,4
Espainia	2,7	2,3	1,8	1,6	—	—
Herbehereak	2,7	2,2	1,6	2,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.